

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Dassance jauna, buru, Lafitte, Larzabal, Diharce, Villasante, Haritschelhar eta Irigoyen jaun euskaltzaiñak. Etxaniz, San Martin, Zugasti, Artola, Anai Berriotxoa, Loidi, Omaetxebarria eta Zavala jaun urgazleak.

Lojendio eta Mitxelena jaunak ezin etorria adierazo dabe gexorik dagozalako. Baita Eppherre eta Arrue jaunak be.

Ezta aurreko batzarreko agiririk irakurri eta urrengo batzarrerako itxi da.

Larzabal jaunak Euskaltzaindiari zuzendu deusan izkribu bat irakurri dau. Bertan "Frantzia aldeko Eskual Herriko berri" emoten dau eta diño Baiona-n "Euskal Idazkaritza" deitzen dan batasun bat sortu dala eta bere biltokia Cordelieren karrikan, lumero amalauan daukala. Batasun orren asmoa da euskerearen eta euskalduntasunaren alde lanean ari diran guztiei laguntzea. Labeguerie jaunak egiten dau buru. Pozik ikusten dau Euskaltzaindiak euskerearen alde egin gura dabena.

Lafitte jaunak beste izkribu bat irakurri dau. Euskaltzaindiak Euskalerriko bost apezpiku jaunei karta bat zuzendu deien eskatzen dau. Azkenenko Kontzilioaren batzarretan, ain zuzen be, liturjia barriztetako erabagi batzuk artu dira eta ori oiñarritzat arturik euskerea gogoan artu daien eskatu bear jako aldakuntzak egiten dabezanean, eta Euskalerrri osorako gauza bera ontzat artzea gauza egokia izango litzakea-la, alderdi bakotzeko esateko moduak gordeaz, esan. Haritsohelhar jaunak frantsesez ipiñi dau bialdu bear litzakean karte. Ontzat artu da eta gaztelaniaz ipiñi ondoan egin bedi eskabidea. Eskuz esku emon bekie apezpikuei.

Aita Zavala-k diño aurten Euskalerrri osoko bertsolarien txapelketea egitea toketan dala. Datorren batzarrerako orren gainean asmo zeatz bat ekarri daien urrengo jaun oneik izentau dira: Dassance, Arrue, Irigoyen, Zavala, Artola, San Martin eta Juan M.<sup>a</sup> Lekuona.

Aurten Agustuan Loyola-n egin bear dan Euskalzaleen biltzarraz berba egin da. Bertan erabiltzeko gai nagusia urrengo au izan bedi:

**"Euskal irakurleak geitzeko bideak,**

- a) Euskera etxean
- b) Euskera eskolan
- d) Euskera radioan
- e) Euskera gaurko liturjia berrian
- f) Euskera teatroan
- g) Irakurtzen asi berriak diranentzat literatura."

Irigoyen jaunak diño Urtarrillaren 26-an Euskaltzaindiak urtero egin oi dauen jaia egin dala Bilbo-ko Arriaga Teatroan. Ondarrutarrak Agustin Zubikaray-k osatutako "Seaska inguruan" obrea jokatu dabe. Erkiaga eta beraren artean igaz esamiñatu ziran bizkaiko neska mutillai sariak emon deutsiez. Aita Frantzizko Kortabitarte Jesusen Konpañiakoak sei milla ta bosteun peseta emon deutsoz Euskaltzaindiari eta dana partitu jake ume sarituei.

Bertso papel batzuk eldu dira bertsolarien klasean ari diranen poesia sarietarako. Norbait oraindiño bialtzeko dagoela diño Aita Zavala-k eta datorren batzarrean erabagiteko itxi da. Aurten be, lengo moduan, ipiñi bedi Lizardi poesia saria eta bertso papelena.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.